ASTELEHENA
txintxarri

744. zk.
2008-12-15
LASARTE-ORIA

www.txintxarri.info



Lasarte-Oriako taldea Okendo plazatik Zubietara abiatu zen euriari eta haizeari aurre eginez.

# Errauskailuaren aurka

Foru Aldundiak errauskailuaren proiektuaren alde egin zuen apustu lehengo astean

Herritarrak errauskailuaren aurka agertu dira berriro ere. Larunbata goizean, euriari eta haizeari aurre egin eta lasarteoriar taldea Zubietara abiatu zen errauskailuaren aurkako mendi martxan parte hartzera. Usurbil, Donostia eta Zubietako taldeekin batu eta 150 bat pertsona errauskailua eraikiko den lurretaraino egin zuten bidea. Ibilbidean ingurunearen balio historiko eta naturala azaltzeaz gain, desjabetuko diren lurren eta errauskailuak behar dituen azpiegituren berri izan zuten. •

## Euskal Herriko selekzioaren alde

*Bai Euskal Herriari*k deituta hainbat lasarteoriar hurbildu zen larunbatean Okendo plazan egin zen Euskal Herriko selekzioaren aldeko ekitaldira. Selekzioko jokalarien testuari atxikitzeko aukera egon zen Okendon ezarri zen karpan eta talde argazkia egin zen. Antolatzaileek jakin arazi digutenez, 40 bat herritarrek sinatu zuten ekimenaren alde. Era berean, Ostadar erregionaleko mutilak bere atxikimena erakutsi zuten igande goizeko partidan, Euskal Herriko selekzioaren aldeko pankarta zelaira ateratzean. •






Xabier Areta Kolonbian brigadista lanetan egon den herritarrarekin solasaldia /4-5

KIROLA /2
Ostadarreko erregionalak eta jubenilak igoera faserako sailkatuak

GIZARTEA /3
Gazteentzako gaueko aisia bultzatu nahian Ostartek jokoen aretoa antolatu zuen larunbatean

KULTURA /6
Pilar Soberonen margolariarekin egon gara, bere ikasleek margoen erakusketa ipini dute Jalgin

ELEKTRIZITATEA ARREGUI
• Material elektrikoa
• Argiak
• Etxetresna elektrikoak
• TB/Hi-Fi
• Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

Proba ezazu gure laser zerbitzua
• Era guztietako depilazioak
• Aurpegiko tratamenduak
• Gorputzeko tratamenduak
• Makillajeak
• Beste hainbat zerbitzu
MAITE
ESTETIKAKO ARETOA
Uistin kalea, z/g • Tel.: 943 370845 • LASARTE-ORIA

# Ostadarreko erregionalek eta jubenilek igoera fasea jokatuko dute

Lehengo asteburuan, II. Erregionaleko eta I. Jubenileko derbiak jokatu ziren Michelinen. Bi partidatan Ostadar gailendu zitzaion Texas Lasartearrari. Jardunaldi honetan bukatu da txapelketako lehenengo fasea bi maila hauetan eta Ostadarreko taldeak lasai jokatu dute igoera faserako sailkapena dagoeneko lortua baitzuten. Texas Lasartearrakeko erregionalek eta jubenilek garaipena behar zuten eta, gainera, lehiakideen partiden emaitzek eragin zezaketen hauen sailkapenean.

Arestian aipatu bezala, II. Erregionalen eta I. Jubenilen arteko derbiak jokatu ziren Michelinen abenduaren 7an. Ostadarren aldeko emaitzak izan zituzten biek, erregionaletan 1 eta 7koa eta jubeniletan partida bertan behera geratu zen Ostadar 3 eta 0 irabazten zihoala.

Epailearen erabaki batek sortutako istiluek ekarri zuten jubenilen partidaren etetea. Texaseko jokalari eta epailearen arteko hika-mikek Texas Lasartearrakeko hainbat jokalarien kaleratzea izan zuten erantzun gisa eta taldeko sei jokalari soilik geratu ziren zelaian. Beraz, partida bertan behera uztea erabaki zuen epaileak.

Erregionaletan, berriz, Ostadarrek 1 eta 7 irabazi zion Texas Lasartearrari. Lehenengo zatian Koldo Ageitosen mutilek Ostadarreko mutilak ongi eusten jakin zuten. Zoritxarrez, defentsaren bi huts Ostadarren gol bihurtu ziren. Hala ere, Texas Lasartearrak erantzuten jakin zuen eta atsedenaldira iritsi baino lehen Raulek errenta txikitu zuen.

Bigarren zatian, aldiz, Ostadarrek gol aukerak ongi aprobetxatu zituen eta errenta pixkanaka handitu zuen azken emaitza 1 eta 7a izanik.

### Igoera faserako sailkapena

Derbi hauek maila hauetako azken-aurreko jardunaldian burutu ziren eta asteburu honetan igoera faserako taldeak zeintzuk ziren jakingo zen.

Erregional mailan, multzo bakoitzeko 5 taldek egiten zuten aurrera eta jubeniletan, taldeko hiru lehenak bat ezik, hau da, hirugarren postua eskuratu dutenen artean puntuazio txarrena duenak ez zuen igoera fasea jokatzeko aukerarik.

Hau honela izanik, sailkapena aztertu eta asteburu honetako emaitza kontuan izan gabe, Ostadarreko taldeek hurrengo faserako txartela eskuratua zuten dagoeneko.



Irudian, lehengo asteko erregionalen arteko derbia. Ordurako Ostadar igoera faserako sailkatua zegoen. Arg:Txema Valles

Honela, presio gabe joan ziren jardunaldi honetako partidak jokatzera. Honela, II. erregionaleko taldeak Juventudes de Americari 14 eta 0 irabazi zion eta jubenilek, berriz, 2 eta 1 galdu zuten Urnietaren aurka.

### Texasekoek zorterik ez

Texas Lasartearrakeko erregionalak multzoko laugarren postuan zeuden, baina arerioak gertu zituen, Usurbil puntu batera eta Ordizia 3 puntura. Beraz, Koldo Ageitosen mutilak sailkatzeko Usurbilen garaipena lortu behar zuten.

Tamalez, partida 6 eta 4 galdu zuen eta Ordiziak berea irabazi. Era honetara, Usurbilek Texas gainditu du sailkapenean eta Texasen eta Ordiziaren arteko berdinketa dago. Federazioak erabaki beharko du, golen arabera, zein taldek jokatzen duen hurrengo fasea.

Jubenilen kasuan, Lazkao-Hernani partidako emaitza erabakiorra zen aurrera egiteko. Lazkaok galdu eta Texasek irabaziz gero jubenilek igoera faserako txartela eskuratuko zuten.

Texas Lasartearrakeko jubenilek egin beharreko lana egin eta Amaroz 5 eta 2 garaitu zuten. Zoritxarrez, Lazkaok 3 eta 2 garaitu zuen Hernani eta jubenilek igoera jokatzeko aukerak galdu zituzten. •

## Kiroletako oharrak

**Intalazioen epe luzeko alokairuak**

Kirolen Udal Zerbitzuak Kirol Guneko frontoia, Kiroldegiko pista edo Trinketa 2009 urtean zenbait egun eta ordutan alokatzeko aukera eskaini du.

Abenduaren 21a bitarteko epea ireki da interesatuek udalaren kirol instalazioetako atarian eskaera egin dezaten.

Orduak abenduaren 22an 19:00etan Udalaren Kiroldegian egingo den zozketan banatuko dira; eskaera bakoitzari zenbaki bat emango zaio (zozketara bertaratu diren eskatzaileei bakarrik). Abonatuek lehentasuna dute. Zenbakiak atera hala orduak aukeratuko dira.

Alokairuaren ordainketa, banku bidez helbideratuko da, bi zatitan: lehenengo zatia urtearen lehenengo seihilekoan eta gainerakoa, bigarren seihilekoan. Ez abonatuek sarrera ordainduko dute , aparte.

Kirolen Zerbitzuak instalazioa behar izanez gero, aste bat lehenago abisua emango die dagokien jokalariei. Kasu horretan ordaindutako dirua itzuliko da.

**Igerilekua itxita**

Abenduaren 26an, haurrentzako ureta festa dela eta, igerilekua 9:00etatik 12:30etara itxita egongo da, helduentzat.

**Udal kirol Instalazioak itxita**

Lasarte-Oriako Udal Kirol Instalazioak 2008 eta 2009 urtetarako onartua duen egutegiak agintzen duenez, datozen abenduaren 24, 25 eta 31an eta urtarrilaren 1etan Udal Kirol Instalazioak itxita egongo dira.

## Kirol emaitzak

### Futbola

Eibar - Ostadar (Kadeteen Ohorezko Maila, kopa) . . 2-0
Ostadar - Behobia (Infantilen Ohorezko Maila, kopa) . . 3-1

### Areto-Futbola

UPV Alava - Aldaz H.K. (Euskal Liga) . . . . . . . . . . 4-5
Garetxe Lazkao - ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) . 4-2

#### Herriko txapelketa

| | |
|---|---|
| Ilargi - IOB H.K. | 1-4 |
| Danena - Izarra | 2-3 |
| Oria Txiki - Mayi | 0-3 |
| Ainhoa - Tragoxka | 4-3 |
| Epel - Oria Kristaldegia | 2-3 |
| Obelix- Okela | 3-4 |
| Jordi - Siglo XX | 7-0 |
| Lurra XXI - Katanga | 1-0 |
| Morrison - Viña del Mar | 3-4 |
| Izkiña - ISU Leihoak | 1-2 |
| Biyona - Buenetxea | 4-4 |



## Benjaminen Topaketa

Landaberri eta Sasoetako LH3 eta LH4 mailetako 25 haur bildu ziren ostirala arratsaldean Michelingo atletismo pistan egin zen benjaminen topaketan.

Luzera jauzia, 60 metro hesiak eta pilota jaurtiketa egin zuten ordu beteko saioan eta bat baino gehiagok bere trebezia erakutsi zuen korrika egiten edo saltoan.•

# Kalean baino, hobe jokoan





TXINTXARRI

**Gazteentzako gaueko aisia bultzatu nahi du Ostarte Gazte Taldeak eta horretarako hainbat ekintza burutu ditu urtean zehar. Larunbata honetan joko aretoa antolatu zuen Arantzazuko Amabirginaren eliza azpiko lokalean eta hainbat gazte hurbildu ziren ongi pasatzera.**

14 eta 17 urte arteko gazteei zuzendutako deialdia egin zuen Ostarte Gazte taldeak. Helburua nerabeen gaueko aisia bultzatzea eta hauek giro onuragarrian une atsegina eta dibertigarria pasatzea.

Oraingoan, jokoetan oinarritutako ekintza izan da. Bideo-jokoak, hala nola, *Sing star* edo *Eye toy*ko talde jokoak, mahai-tenisa, futbolina eta dardoak gazteen eskura egon ziren gaueko 22:00etatik gauerdira arte.

### Irakurketa baikorra

Ekimenaren antolatzaile den Ainara Elizetxearekin hitz egin dugu eta irakurketa baikorra egin digu ekintzari buruz.

"Hogei bat gazte bildu dira gaur hemen. Bartzelona eta Madrilen arteko futbol partida eta eguraldi kaxkarrarengatik, gutxiago espero genituen," aipatu digu Ainarak.

### Ekimenarekin aurrera

Honetaz gain, ekimenarekin jarraitzeko asmoa dutela adierazi digute Ostartekoek.

Udazken eta neguan gaueko aisia leku itxietan egiteko asmoa dute Ostarte Gazte taldekoek eta udaberri eta udara partean, eguraldia hobera doanean, berriro ere kanpoko ekintzak egingo direla aipatu digute.

"Aurreko batean bertan behera utzi behar izan genituen saskibaloi partidak jokatzeko daude. Baina eguraldia hobetzen denean izan beharko," esan digute antolatzaileek. •

## Jazza sentimendu osoz

Giro ederra sortu zen ostirala gauean Jalgi kafe-antzokiko jam sesioan. *eMonktion jazz* talde donostiarra izan zen gonbidatua. Jorge Abadías (gitarra) Aritz Luzuriaga (baxua) eta Hilario Rodeirok (bateria) osatzen dute taldeak sentimendua erakutsi zuen eskainitako hainbat abesti eta bakarkako inprobisazioetan.

Hainbat izan ziren taldearen trebeziaz gozatzeko aukera izan zuten pertsonak. •





## Haurrak paradisu galduan

Animali eta landare ezezagunak, hiru haur galdu, dantza eta mugimendu komikoak eta, gainera, mundu dibertigarri eta zirraragarri horretan guztia eraldatzen da. La Dinamica dantza taldeak, *Animaliak* saioari esker, paradisu galdu batean murgildu zituen Manuel Lekuona kultur etxera hurbildu ziren haur eta gurasoak. Bukaeran eskaini zituzten txaloak emanaldia gustuko izan zutenaren seinale. •

*UDAL ESKAINTZA*

## Kultur etxeko kafetegiaren ustiaketa

Gazteria eta Festetako sailak eta Xpression kultur elkarteak sinatu duten hitzarmenaren ondorioz, Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian hamabostean behin, ostiraletan, kontzertuak eskainiko dituzte, arratsaldeko 20:00etan. Ekimen honen bidez, kafetegiko zerbitzua ustiatzeko aukera dute herriko irabazi asmorik gabeko taldeek. Orain artean, institutuko ikasleek ustiaketaren ardura hartu duten arren, Gazteria eta Festetako sailak herriko taldeei zabaldu nahi die eskaintza hau: "ekimen honen bidez, kafetegiko zerbitzuarekin lortzen den dirusarrera ardura hartzen duen taldearen helburuetan laguntzeko izango da".

Kafetegiko ustiaketan interesa duten taldeek instantzia baten bidez egin behar dute eskaera, udaletxean. Aurkezten diren eskaeren arabera egunen banaketa egingo dute. •

*MUSIKA ESKOLA*

## Gabonak ate joka

Bihar, Gabonetako giroa nagusi izango da Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan. Izan ere, Lasarte-Oriako Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua eskainiko baitute. Arratsaldeko 19:00etan hasten den emanaldian garai eta estilo desberdinetako Gabon abestiak entzungo dira, hala nola, *Haur eder baten bila* edo *Jingle Bell*. Ikasleez gain, Alboka Txiki abesbatza eta Aitor Tejedorrek ere parte hartuko dute Gabonen iragarpen kontzertuan. •

*MULTIMUSIKALA*

## Hurrengo zenbakian

Ostiraleko TXINTXARRIan gaurko zenbakian VII. Multimusikalari buruzko informazio gehiago argitaratuko genuela iragarri genuen, baina hurrengo zenbakian izango da. •



## Xabier Areta Brigadista

# “Kolonbian ez dago demokraziarik gaur egun”

**Xabier Areta Lasarte-Orian bizi den antiguatarra, azken bi udatan egon da Kolonbian Komite Internazionalista taldearekin brigadista moduan, Kolonbiako errealitate konplexua zuzen zuzenean ezagutu du eta atera duen ondorioa zera da, demokraziarik ez dagoela han eta ez du epe laburrera konponbiderik ikusten. Esperientzia oso “interesgarria”izan da: “ahiz eta han egon gauza asko zailak dira ulertzeko, hango nahaste-borrastean, baina bere xarma du herrialde honek”.**

Jon ALTUNA

Giza eskubideen alde lanean dihardutenei babesa ematera joan da Kolonbiara, Xabier Areta irakaslea, eta bizipenak kontatzearekin batera ikusi duenaren gakoak azaldu dizkigu. Donostiakoa da, Antigua auzokoa eta sei urte daramatza Lasarte-Orian bizitzen. Guztira hiru euskaldun egon dira aurten herrialde honetan, Europako, Kolonbiako bertako eta Kanadako beste lagun batzuekin batera. "Guztiek sare bat osatzen genuen, zerbait gertatuta ere eragin ahal izateko".

**Kolonbiatik albiste on asko ez da etortzen, oro har, bortizkeria, hilketak, gerra giroa,... Zuk zein inpresio ekarri duzu?**

Kolonbian alde batetik hori dago, eta hori ezagutzera joan nintzen lehen urtean. Horrelako berri asko izaten dira, baina zuzenean ezagutu nahi nuen, hango aktore eta gizarte eragileekin hitz egin.

Ez da erraxa zer gertatzen den ulertzeko, azken finean lapikoan osagai asko daude: errekurtso natural pila, petrolioa, gasa, basoa, paisaia basatia, urre asko, zinka,...

Bestalde sekulako injustizia maila dago, amorrua sentitzen duzu Kolonbian batzuen eta besteen arteko diferentziak ikusita, Medellin eta Bogotako aberatsen auzoetan batez ere... eta lurraren kontzentrazioa ere beste faktore bat da. Honek eragina dauka hango gerrate egoerarekin. Gerrilla dago, paramilitarrak daude, ejertzitoa dago, errekurtso naturalak eta bestetik drogen inguruko saltsa,... horri esker paramilitarrek nahiz gerrillak lortzen dute euren finantziaketa.

Ulertzeko konplexua da, bertako hedabideak ere kutsatuta daude, baina han zaudela jendea oso alaia dela ikusten da gero. Bizitzaz duten kontzeptua bestelakoa da. Esaterako, diote: "goazen gaur parranda egitera zeren bihar auskalo". Errepresio handia izan da gizarte eragileen aurka. Kolonbia lehen herria da sindikalisten hilketa mailan. urtero ez dakit zenbat hil dituzten, Uribe presidente denetik, uste dut 300 bat sindikalista hil direla.

**Komentatuko ditugu gutzi hauek, baina kokatzeko kontaiguzu non egon zaren eta zer asmorekin joan zinen?**

Aurten Medellin eta bere ingurunean egon naiz, Antioquia departamentuan. Kolonbiaren erdi inguruan dago. Bogota hiriburuan ere izan naiz eta kostaldean, iparraldean. Gure lana zera da, joan, ezagutu eta bueltan ikusi duguna kontatu eta zabaldu. Han akonpainamendua egiten dugu, nazioarteko presentzia deitzen dena. Medellinen giza eskubideen arloan diharduen abokatu talde batekin lan egiten dugu eta horiek akonpañatu egiten ditugu, babesa eman. Arraroa da akonpainamendu hori: herritaren batetara joan behar bazuten, Medellindik hiru edo lau ordutara, kotxean joaten ginen beraiekin. Beraiek bakarrik joatea ez da erraza, kontrolak daude, militarrak dabiltza eta paramilitarrak agertu daitezke. Han erresioa handia izan da: Paramilitarrek ezin dute gerrillarekin eta beraz erabili duten estrategia, beraiek aitortzen dutenez, zera da, arrainari ura kentzea, hau da sindikalisten kontra eta abokatuen kontra egin dute. Beraz, gure lana joan eta beraiekin ibiltzea da. Baina ez bakarrik abokatuekin. Komunitateetan ere egon gara jendearekin, beraiek lasaitzeko, Ejertzitoa han egoten da eta.

**Kolonbia oso handia da, eta denetarik egongo da, ezta?**

Batetik indigenak daude: kolonialismo garaian ia suntsitu zituzten, eta beraz, Peru eta Ekuadorren baino askoz gutxiago dira, ehuneko 1 edo ehuneko 2. Toki askotan dabiltza indigenak borrokan: betikoa, enpresa handi ren bat (Repsol, Britsish petroleum,... esaterako) bere lurretara joaten delako baliabideren baten bila, edo desplazatuak izaten direlako.

Gero jatorri afrikarra dutenak ere badira, batez ere Karibean, eta Pazifikoko Kostan. Horiek ere beste errealitate ezberdina daukate, baina indigenek bezala beren identitatearen alde ari dira borrokan eta azkenik mestizo pila bat ere badaude borroka ezberdinarekin,... bai lurraren alde, bai beste gizarte mota baten alde.

Baina oro har, Kolonbia, Herrialde handia da kontraste asko daude, besteak beste iparraldea eta hegoalde artean, oso menditsua da, oihana dago,...

**Aniztasun hori zen da lagungarri, berez arazoak sortzen ditu, ala errealitatea da besterik gabe,...**

Arazoak nahiko berdintsuak dira, indigenek lurraren alde borrokatzen dute, afrikar jatorrikoek beren nortasunaren alde, mestizoek lurra, aldaketa edota giza eskubideen alde,...



Kolonbiako ejerzitoak, Barne Produktu Gordinaren parte handia jasotzen du.





Xabier Areta bi udatan izan da brigadista Kolonbian Komite Internazionalistaren bidez. Hurrengo udarari begira, beste asmo lasaiagoak dituela aitortu zigun.



Hirietara joan beharrean izan dira nekazari asko.

Argazkiak /Xabier ARETA

> “Ez da ulertzeko erraza, osagai asko daude lapikoan: baliabide naturalak, desberdintasun handiak, injustizia, gerrilla, ejerzitoa, paramilitarrak, droga,...

**Eta gerra girorik nabaritzen al da?**

Bai, nabaritzen da, gizartea oso militartuta dago, poliziaren presentzia izugarria da. Azken urteotan Plan Kolonbiari esker diru asko iritsi da Amerikako Estatu Batzuetatik eta barne produktu gordinaren ehuneko oso altua inbertitu dute horretan, mundu mailan altuenetarikoa. Militarren presentzia hori nabari da, baina gero desagerketak daude eta zer gertatzen den ulertzeko zaila da. Atzerritarra zara eta ez zara gertatzen den denaz jabetzen. Kolonbiarren artean ere ezjakintasun handia dago, herri askotan ez dira enteratu ere egiten.

Adibidez Medellinen azken urteotako datuak ikusi nituen eta ehundaka dira desagertuak.

**Gatazkak luze doa, 50 urte daramatzate tirabiratan, etsipenik nabaritzen al da?**

Azken urte hauetan Alvaro Uriberen politika “seguridad democrática” izan da, hau da, etekinak edo arrakastak izan dituzte gerrillaren aurka. Eta ez hori bakarrik, dena ari dira dena nahasten. Euskal Herrian ere gertatzen da hori. Dena gaiztotzen da. "Nirekin ez baldin bazaude nire kontra zaude". Horrela gizarte eragileak, ikasleak edo oro har Gobernuaren aurka daudenak,... harekin lotzen ditu. Uriberen mezua hori da:” zu nire aurka zaude, beraz, zuk gerrilarekin bat egiten duzu”. Orduan, esate baterako Medellingo unibertsitatean beldurra dago, infiltratuak daude, jendea desagertu egiten da, etsipen maila ikusten da: “zer egin dezakegu? Ezin dugu ezer egin Uriberen aurka”...

**Eta konponbiderik ikusten al da?**

Epe laburrera ez dago konponbiderik, Uriberen ospea asko igo da Ingrid Betancourt-en askatasuna lortu eta gero,...

**Bake prozesu saiakera guztiek porrot egin dute, bake borondaterik ere ez da ikusten hemendik begiratuta,...**

FARC saiatu zen negoziatzen,... baina Gobernuaren erantzuna egurra, egurra, eta egurra izan zen. Zaila da, orain gutxi intelektual batzuek eskatu diote FARC-i berriro ere negoziaketa mahaia abian jartzeko...

**Bitartean herriak zer egiten du irauteko?**

Egoera oso txarra da Medellin eta Bogota bezalako hirietan. Pentsa: jende pila bat bizi da kalean, Kolonbia barruan lau milioi desplazatu daude, hiriburu horietan ahal duen bezala bizi da jendea, egunero zailtasunak dituzte jana lortzeko eta bere seme alabei emateko. Oso tristea da. Askotan nekazari bat aurkitzen duzu Medellin erdian kafeak zerbitzen, erabat galduta, bere buruari galdetuz, “zer egiten dut nik hemen?” Jende asko da agian hiru aldiz desplazatua izan dena,...

Batetik tristezia hori nabaritzen da, baina beraiek berez alaiak direnez batzutan buelta ematen diote.



Bogotan nahikoa lan dute bizitzeko. Lau milioi desplazatu daude Kolonbian.

> “Egoera txarra da hiriburuetan. Desplazatu asko bizi da kalean.

**Ez al da egoera txarra Gobernuaren aurkako indar bilakatzen...**

Bitxia da, baina bada desplazatua izan den jende asko, eta gaur egun Uriberen aldeko dena. Askok esaten dute: Uribe ondo ari da, gerrillari irabazten, baina ez dira konturatzen beraiek ez dutela ezer, berdin jarraitzen dutela.

Gobernuak eman beharko dizu hezkuntza, osasuna, etxe bat,... gerrillari aurka egiteko bakarrik al dago Gobernua? Jendeak hori bakarrik ikusten du.

**Gerrillari leporatzen al diote ba bizi duten egoera kaxkarra?**

Era irekian ez dute gehiegi hitz egiten gerrillaren inguruan. Baina agian bada neke puntu bat, urte asko pasa direlako. Oso luzea doa. Gerrillak kontrolatutako eremu askotan militar eta paramilitarrak agertu zirenean gerrillak ospa egin zuela ikusi dute herritarrek. Laguntzen ari zirenak beharra zutenean besteak ospa. Gertatu da gerrillan aritutako batzuek diruaren truk hasi direla ejertzitoari laguntzen. Batzuk etxez etxe pasatzen hasi dira, toki batean jaten ematen ziotela, edo bestean lo egiten zutela,...

Honek jendearengan inpresio handia eragin du eta nabari da nekea gizartean.

**Eskerrak umoreari bestela zaila izan behar du horrelako bizipenekin eta egoera latz horretan aurrera egiteak. Bizitzea bera ere...**

Bai, sindikalista askok eta askok bizkarzaina daukate. Taberna batean sindikalista batzuekin elkartu eta umorez hartzen dute: “vamos hoy a parrandear que mañana no se sabe”...

**Zein ondorio ateratzen duzu Kolonbian bi aldiz egon eta horrelakoak ikusita?**

Sentipen nagusia amorrua da, "nola da posible?". Lau milioi desplazatu daude, eta desplazatuak izan diren guneetan paramilitarrak geratu dira lur onenekin. Koka, afrikako palma eta beraien interesentzako onak diren landareak hasi dira landatzen. Beraz sentimenduak amorrua eta esperantza dira. Beraientzat esperantza Hego Amerikari begira dago: Venezuelan, Brasilen, Bolivian, kuban... badira presidente iraultzaileak: Bakarrik geratzen ari gara eta agian irtenbideren bat bada egunen batean... baina egia esateko gaur egun Kolonbian ez dago demokraziarik.

**Bakea aldarrikatu arren, berdintasuna, justizia eta horrelakoak arrotz izango dira han?**

Garai batean beraiek esaten zuten Europatik EBtik etor zitekeela konponbidea, baina azken hilabetetan ikusi da hasi direla hedabideetan apur bat bada ere Uriberen politika goraipatzen. Hori argi ikusi daiteke esaterako El Pais bezalako egunkarietan.

Batzuk esaten dute agian aurrera begira zentroko alderdi politikoak elkartu, aldaketa minimoren bat emateko.

**Harrigarria da ezer ez duten pobreen artean ere Uriberen aldeko babesak lortzen direla jakitea.**

Nahaste borraste handia dago. Esaterako, han ginela uztailaren 20an izan zen askatasunaren alde eta gerrillaren aurkako manifestazioa: hiriburuan ikusten genituen gehienak zuriak ziren, baina gero zentrotik aparte dagoen auzo batera joan, Ciudad Bolivar-era, eta hor bitxia zen txabola ziztrinetan Kolonbiako bandera jarrita ikustea. Nahastu egiten dituzte independentziaren eguna, eta FARCen kontrako eguna, bahiketen kontrako eguna. Txabolan ez dago surik, ez energiarik, ez ezer baina banderarekin presidentea apoiatzen ari ziren.

**Bestela manifestapenik egiten al da, giza eskubideak babesteko edo armadaren gehiegikeriak salatzeko?**

Bai, badago mugimendutxoa, esaterako desagertuen alde, “Donde están nuestros hijos, donde están los desaparecidos?” ez dira asko joaten, baina.... Argetina edo Txilerekin lotura dute, manifestazioak egiten dira, politikoen eta desagertuen alde, justizia eskatzen da,...

Ikusi da Uriberen “el partido de la U” delakoan sartuta daudela paramilitarrak. Batzuk auzipetatu egin dituzte eta erlazioa ikusten da. Jende askori berdin zaio baina beste batzuei ez eta kalean daude protestaka.

**Eta justizia egiten al da? auzipeatuak izatea bada zerbait baina, zigorrik aterako al da?**

Argi dago, Uribek justizia kontrolpean nahi duela, aldaketak planteatu ditu eta egon zen abokatuen greba bat.

Bestalde, fosa komun batzuk ari dira ateratzen. Iaz 30.000 desagertu izan dira, herrietan hildako asko dago eta ari dira zuloak begiratzen,..

**Sufrimendu asko egongo da beraz, ezta?**

Bai, Antioquiako herrixkatan, denak daukate anairen bat, senarra edota semea, batzuek hilda eta besteek desagertuta. Eta jendeak kontatu beharra sentitzen du, askatu egiten da, eta sarri bere burua ere engañatzen dute: semea desagertua izan, baina “agian kostaldean egongo da lanean" esaten dute,... Pena ematen du zeren nekazari jendea oso jende xumea da.

**Eta horiek bere ingurutik, nekazal lurretatik aterata asko sofritu ko dute, ezta?**

Lau milioi desplazatu horien artean drama handiak daude, nola bizi diren, eta ondorioak asko dira, miseria, prostituzioa, drogak... aurrera egin behar dute nola edo hala.

**Eta kokainaren negozioak zer paper jokatzen du, badaukazu klaberen bat,...**

Zaila da azaltzeko. Nik ikusi dut nola fumigatzen dituzten kokasailak, eta penagarria da baina, koka landarea ez da hiltzen eta beste guztia erretzen du: arroza, yuka,... askotan nekazariek koka landatu izan dute beste aukerarik ez dutelako.

Nekazal gune apartatutan ez dute dirurik, platano eta arroz apur bat soilik, eta koka landatuz diru apur bat eskuratzen dute, baina hor negozioa, gehienbat paramilitarrek kontrolatzen dute. Gerrillak ere lortzen du dirua: Gerrillak kontrolatutako ingurua bada, nekazariek zerga moduko bat ordaintzen diete.

**Erdibiderik ba al dago, esan nahi dut, alde baten eta bestearen artean ba al dago franja sendorik? Zuria eta beltzaren artean ze zabalerako grixa dago?**

Badago grixa. Uribek zazpi milioi botu eskuratu ditu eta Kolonbiak 44 milioi biztanle ditu. Erdibidean badago, polo demokratikoa deitzen dena, ezkerreko batasuna,... badaukate bere espazioa eta bere indarra.

Ez dakit ze puntutaraino lor dezaketen nahikoa indar Uriberi aurre egiteko. Badago tartekorik, baina momentua n Uriberi dena ondo atera zaio, hedabideak kontrolatzen ditu, ejerzitoa hor dago, gerrillaren aurka asmatzen ari dira,...

Polo demokratikoak denbora gehiago beharko du oraindik alternatiba erreal bilakatzeko. •

*DEIALDIA*

## Udalak gidariei ardura gehiago eskatzen die

Udaletik igorri dutenez, azken aldi honetan zenbait hiritarren kexuak jaso dituzte auto gidarien ohitura txarren inguruan. Batetik, gaizki aparkatutako kotxeek oinezkoak arriskuan jartzen dituzte errepidea pasatzeko garaian ikustespena oztopatzen dutelako. Bestetik, gidari askok semaforoa laranja edo gorria dagoenean pasatzen dira oinezkoren bat harrapatzeko arriskuarekin. "Antzeman dugu ere, zenbait aparkamenduetako irteeretan, erosotasunez, autoak kontrako zentzuan irteten direla, parez pare datozenentzako arriskuarekin". Hau guztia dela eta, udalak gidariei ardura gehiagorekin gidatu dezaten eskatzen die.•

*HITZALDIAK*

## *Etxean nola konpostatu*

Ingurugiro, Kontsumo eta Osasun Departamentuak San Markoseko Mankomunitatearekin batera autokonpostajeari buruzko hitzaldia antolatu du. Saioa hilaren 17an, asteazkenean, 19:00etan Villa Mirentxun izango da. Albert Piqué gaian adituak autokonpostajeari buruz arituko da: hondakin organikoak ongarri bihurtzearen prozesuaz, bere gauzatzeaz eta konpostak landareak eta baratzak elikatzeko duen aprobetxamendua zertan den azalduko du.

## *Haurtzaroa eta emakumea Guatemalan*

*3. Adina 3. Mundurako* elkarteak antolatuta, Cristina Molina lasarteoriarrak *Haurtzaroa eta emakumea Guatemalan* izenburupean hitzaldia eskainiko du Alzako Tomasene kulturetxean, abenduaren 16an, 19:00etan. Cristina Molina Guatemalako Radio IGERren kooperante moduan aritu da.•

# "Umeek irudimenaren bitartez gidatzen dira lanak egiteko"

TXINTXARRI

**Pilar Soberon artistak bere ikasleen lanak Jalgi Kafe Antzokian zintzilikatu ditu eta abenduaren 31ra arte ikusgai egongo dira. Ikasleen adin tartea zabala da, izan ere, gazteenak bost urte ditu eta zaharrenak... "asko" esan digu Pilarrek. Beraz, lasarteoriar hauen lan mota desberdinak ikusteko aukera duzue.**



Pilar Soberon eta bere ikasle gazteenak erakusketako lan batzuen aurrean. Azpian, Jalgin ikusgai dagoen lanetako bat.

**Erakusketa ikusi ez duenak zerrekin aurkituko da?**
Lan oso desberdinak zintzilikatu ditugu: oleoz egindako erretratuak, pinturak, margoak... Teknika desberdinez egindako lanak dira. Abiapuntua artista baten lana da eta gehienetan beraiek egindako marrazki bat izaten da. Hau da gehien gustatzen zaidana.

**Ume eta helduekin aritzen zara lanean, nola moldatzen zara guztiei egokitzeko?**
Planteamendua interdiziplinala da, hau da, artea modu eta ikuspuntu askotara ezagutzea da helburua, margoa, marrazkia, eskultura... landuz. Nik gaiak edo teknika batzuk proposatzen dizkiet eta hori lantzen dugu. Umeekin gauza berriak lantzeko aukera paregabea da, haiei asko gustatzen zaie eskulanak egitea, material desberdinekin jolastu, hauek nola moldatu ikasi... Iaz lehen aldiz argizaria modelatu genuen. Argizaria epela dagoenean landu eta forma ematen zaio. Beraiek aukeratzen dute zein kolore erabili, zein forma atera... Egia esan, beraiek ez dakite zer egiten ari diren benetan lana bukatu duten arte. Irudimenaren bitartez gidatzen dira. Oso polita eta aberasgarria da guztiontzat.

**Beraz, ikasleak ez dira aspertzen.**
Teknika eta material desberdinekin lana egitea gustuko dut eta ez beti berdina landu eta hori errepikatu. Denetarik egiten dugu: erretratua, eskultura, komikia, marrazkia... digitala ere lantzen dugu.

Batzuetan artista batzuen lanak erakusten diet eta berari buruz eta teknikari buruz hitz egiten dugu. Horrela, lan eta teknika desberdinak ezagutzen saiatzen gara. Azken finean, bakoitzak artea bere erara interpretatu dezan saiatzen naiz.



**Nola aukeratu dituzue ikusgai dauden lanak?**
Denon artean egin dugu aukeraketa eta ez pentsa, ez da erraza izan, eztabaidak izan ditugu. Lana bakoitzak izenburu bat eta egilearen izena darama, honekin ere lanak, batzuek izenaren ordez anonimo jarri nahi zuten eta.

**Eskulturak ez dituzue ekarri?**
Pena bat da, gauza politak eta bitxiak egin dituztelako, baina lekua ez da egokia hauek ekartzeko, ez dago leku nahikorik. Material desberdinak eskuz moldatu eta horren gainean beste material batzuk jartzen dituzte. Forma oso politak eta interesgarriak atera dira. Askotan nik erabiltzen ditudan teknikak erakusten dizkiet eta beraiek egiten saiatzen dira. Batzuetan transformazio arrarok egiten dituzte. Azken finean, artea horrela da, materialak ikertu...

**Erakusketa haurrak motibatzeko modu bat al da?**
Nire ustez, beraien lanak erakustea oso garrantzitsua da, ikus dezaten beraiek egiten duten lana ez dela edozer gauza, oso garrantzitsua dela eta besteen iritzia jasotzea eta ezagutzea autoestima lantzeko balio du. Bereziki umeen kasuan oso garrantzitsua da, helduagoek autoestima hori landuagoa dugulako. Nerabezaroan dena hankaz gora jartzen dute, hau zergatik izango da, hau zergatik bai, hau zergatik ez... Horregatik, egiten duten lanei garrantzia ematea oso positiboa dela uste dut.•

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak

Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea

AIRE, AIRE !!!
EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

**Argitaratzailea:** Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • **Legezko gordailua:** SS513/93 • **ISSN:** 1134-0053 • **Inprimategia:** Zeroa Multimedia, S.A.
**Aleak zenbakiko:** 7.300 • **Erredakzioa:** txintxarri@ttakun.com • **Publizitatea:** publizitatea@ttakun.com • **Administrazioa eta banaketa:** administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.
**Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.**

## Egunero

**Erakusketa**
Pilar Soberonen ikasleen margoak ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan



**Erakusketa**
Tomas Fernandez Argazki Rally lehiaketako argazkiak ikusgai erakusketa aretoan. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21.00etara. bietara

## Asteartea, 16

**Kontzertua**
Udal Musika Eskolak Gabonetako kontzertua eskainiko du auditorioan. Kulturetxean, 19:00etan, bietara.

## Asteazkena, 17

**Ipuin-kontalaria**
Koruko Zurutuza ipuin-kontalariaren saioa etxeko txikientzat. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan. Euskara



## *Hala mintzatu zan Zappatrusta* Jalgin, Ander Lipusen eskutik

Ander Lipus & Karabana umorea oinarri duen ikukizuna eskainiko du. Karabana honetatik pertsonai mordoa aterako dira; Juan Junda potosikotikodepresiboa, Euxebio Egaña bandoleroa, Belfast-eko xoumana, Kamaleon Hermeneutika katedraduna, Eskoziako munstroa, Antartidako foka bizardunak, Eskandinabiako druida izoztuak...
Ekitaldi hau Topaguneko Kultur Errota egitasmoaren barne dago.

Ostiralean, hilaren 19an
Jalgi kafe-antzokian
22:30ean, Euskaraz

## Osteguna, 18

**Zinea**
Contra la pared filma ikusgai Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:00etan. Gaztelaniaz.

## Ostirala, 19

**Kontzertua**
Stay Blues taldearen emanaldia Xpressionk! elkartea eta Lasarte-Oriako udaleko Gazteria Sailak sinatutako hitzarmenaren barruan. Manuel Lekuona Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

## Larunbata, 20

**Kontzertua**
Alboka eta Alboka txiki abesbatzek Gabonetako kontzertua eskainiko dute. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:30ean. bietara.

## Astelehena, 22

**Haur parkea**
Haurrentzako Eguberritako Parkea. Haurrek sarrera doanik izango dute, helduek, berriz euro bat ordainduko dute. Michelingo Udal Kiroldegia, goizez 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 20:00etara.

**Kontzertua**
Fco. Escudero kontserbatorioko bakarlari eta abesbatzak Gabonetako bi oratorio eskainiko dituzte Danok Kideko IV Topaketa musikalen barruan. Brigitarren komentuan, 19:30ean.

## Asteartea, 23

**Kontzertua**
The Upper Room bikoteak gospel eta espiritual beltzak eskainiko ditu. Sarrera, 3 euro. Kulturetxean, 20:00etan

## Larunbata, 27

**Kontzertua**
VII. Gau Multimusikalean Sortuz (Agurain), Yaw (Donostia) eta Garagardo gura (Gasteiz) taldeek joko dute Jalgi kafe-antzokian, 17:00etatik aurrera.




## Asteazkena, 31

**Dantzaldia**
Urte Zaharreko festa 2009 urtea erritmoarekin hasteko. Sarrera, 3 euro. Kulturetxean, 01:00etatik 05:00etara.

## Liburutegiko ordutegia

Manuel Lekuona kulturetxea

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

## Esazu irratiko programazioa




**Ostiralero programa!**
FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

## Oharrak

**Aterpeako Eguberritako kanpaina**
Abenduaren 1etik eta urtarrilaren 6ra, ez galdu aukera: Aterpea txartelarekin egin zure erosketak. 30 euroko erosketa bonoak lortu ditzakezu Aterpean elkarteko kide diren dendetan.

**2009ko egutegia**
Lasarte-Oriako Ingurumeneko, Merkataritza, Kontsumo eta Sanitateko departamenduak jakinarazi nahi du, dagoeneko eskuragarri dagoela 2009ko egutegia eraikin munizipaletan (KIUB, udaletxea, kulturetxea, Villa Mirentxu, kiroldegia). Publikazioak departamenduak duen filosofia adierazten du, gure ingurua babestu beharraren mezuen bitartez. Bertan biltzen dira urtean zehar dauden egun aipagarrienak, gogora araziko digutenak zer egin dezakegun eta egin behar dugun garapen jasangarria lortzeko.

**EHNA tramitazioa**
Abenduaren 27a, larunbatarekin, EHNA tramitazio eguna izango da. EHNA tramitatzeko mahaia Okendo plazan ezarriko da, goizeko 11:30etatik 13:30etara. Agiria tramitatu nahi duenak 3 argazki, errolda agiria eta 15 euro behar dituela gogora arazi dute. Eta, honetaz gain, EHNAri buruzko informazioa eta zalantzak argituko dituzte.

**Erketz Gabonak**
Gabonak direla eta, beste urte batez Erketzeko lagunek prest dituzte eztarriak gabon gauan inguruko baserriak egun seinalatu horretan girotzeko. Horregatik urtero bezala, entsaioak antolatu dituzte dena primeran atera dadin. Entsaioak Zumaburuko ikastolan izango dira arratsaldeko 20:00tatik aurrera abenduaren 12an eta 19an. Nahi duen orok parte hartu dezake, ume zahar eta gazte eta ez da inon izenik eman behar.

**Sahara herrirako karabana**
Sahara herriaren lagunak elkarteak bilera bat antolatu du gaur, astelehena arratseko 20:00etan Ola Kalea 1ean (Amaraun Ludoteka) elkarteak erabiltzen duen lokalean. Helburua Sahararako karabana prestatu eta janaria eta bestelako produktuak bidaltzeko jendea batzea da. Elkartetik laguntzeko animatzera gonbidapena luzatu dute.

**Katxalin Elkarteko loteria**
Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkarteak, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegora. Zenbakia 07.731 da eta txartel bakoitzaren prezioa 3 eurotakoa da, 0,50 zentimoko dohaina Katxalin elkarterako izango da. Loteria hau erosteko interesa dutenek KIUBek Ganbo kalean duen egoitzan egin dezakete.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behea

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

# Ludotekako haurren oparia Olentzerori

## *Hator, hator* eta *Alaken* abestiak grabatu dituzte Larraulen Aitor Atxegaren laguntzaz

TXINTXARRI

*Amaraun* Ludotekako haurrek ikasturteko lehenengo hiruhilabete honi bukaera emateko ekintza berezia prestatu dute, Olentzerori oparia.

Horretarako, larunbatean Larraulera egin zuten txangoa Ludotekako 4 urte baino gehiagoko 25 bat haurrek.

Bertan, Aitor Atxegaren estudioan, bi abesti grabatu zituzten elkarrekin *Hator, hator* eta *Alaken*. Estudiora sartu baino lehen sorpresa ederra izan zuten haurrek. Izan ere, Ezti eta Lur *Amaraun* Klubeko lagunak eta Jokin Ayerregarai atean zai baitzituzten.

Pilar Bermejo Ttakuneko aisia arduradunak aipatu digunez, "primeran pasa zuten haurrek Ezti et Lurrekin. Haurrek oso ongi abestu dute eta horrek grabaketa erraztu du. Pena eguraldi kaxkarra izan dugula txangorako. Gainera, eskerrak eman behar dizkiogu Aitor Atxegari egin duen lanarengatik."

### Bertso tailerreko hizkiak

Baina ez pentsa Ludotekako haurrek ohizko gabon kantak grabatu dituztenik. Bai zera. Abesti hauek hizki berezia dute.

Amaraun Ludotekan egiten diren ekintzen artean bertso tailerra dago eta honetan haurrek Jokin Ayerregarairen laguntzaz *Hator, hator* eta *Alaken* abestien hizkia moldatu eta bertsio berriak prestatu zituzten grabaketarako. Adibide gisa, ondoan ezarri dugun *Hator, hator* abestia.

"Abestiak grabatu behar genituela esan genienean, haurrak txundituta geratu ziren", aipatu digu Pilik.

### Olentzeroren etorrera

Honela, abenduaren 24ean Olentzeroren etorrera jaialdian *Amaraun* Ludotekako haurrek bi abesti hauek eskainiko dizkiete opari gisa Olentzerori. Bere gustuko oparia izatea espero dute guztiek. •



### Hator, hator

Hator hator
Ludotekara
gurekin ondo pasatzera.
Lur, Ezti
eta Markorekin
arratsaldero jolastera.

Gaurko gau honetan
pinu azpian
egongo dira
opariak

Afaldu eta gero
goiz-goiz joan ohera
Olentzero dator eta
Olentzero dator eta
Txinpli, txanpla, pun!

Gabon gaua
pozik igaro dezagun
Hator hator
Ludotekara
gurekin ondo pasatzera!


Usurbilgo OIARDO Kiroldegian




PIRRITX, PORROTX ETA MARI MOTOTS

**Piratak**

**Lan berriaren aurkezpen emanaldia**

2008ko abenduaren 20an
bi saio:
arratsaldeko 4,00etan eta 6,30etan

**Sarrerak:** aurretik 5,00 euro, egun berean 6,00 euro (12 hilabete arteko haurrak doan).
**Salgai:** Orio (Arkaitz), Lasarte (Artizar), Usurbil (Bordatxo eta Mahuka), Hernani (Lete).
**Antolatzailea:** ARGIAren Adiskideak Usurbilgo Taldea.